



TXOSTENA / MEMORIA

03: GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

Krisi sistemiko baten eta baliabideen murrizketa orokor baten testuinguruan Gizarte Politikako Departamentuak prestatu duen hirugarren aurrekontua da honako hau. Egoera horri bi zehaztasun egin behar zaizkio Gipuzkoan:

- Ez da egin Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean aurreikusitako finantza egokitzapena.
- Adostutako finantzazio maila bertan behera utzi eta Estatu mailako Mendekotasun Legearen gutxieneko maila murriztu da.

Testuinguru horretan, gizarte zerbitzuak eskubide subjektibo perfektu gisa eratzeko bidean aurrera egitea beste une baterako utzi beharko da.

Hori dela eta, datorren urterako helburu nagusia erresistentzia izango da, Gipuzkoarrek lortutako eskubide nagusiak sendotu eta mantentzea bezala ulertuta.

Baina eskubide hauek finkatu eta mantentzeko, beharrezkoa da 2013. urtea baino altuagoa den aurrekontua esleitzea. Estatuko Mendekotasun Legea maila minimora murrizteak aurreko urtean 30 milioi galtzea suposatu du. Murrizketa hau diru propioarekin estali behar da, Gipuzkoako mendeko pertsonak ez zigortzeko.

Helburu hori lortzeko eta Gizarte Politikako Departamentuari egotzitako funtzioak garatu ahal izateko, Departamentuaren 2014ko aurrekontua honako programa hauen inguruan egituratzen da:

- Zerbitzu orokorrak.
- Desgaituen laguntza.
- Adineko pertsonen laguntza.
- Plangintza eta informazio sistemak.
- Inbertsioetarako eta gizarte lankidetzarako plana.
- Aldizkako prestazio ekonomikoak.
- Gizarteratzea eta matxista indarkeriaren biktimak diren emakumeen arreta.
- Haurren eta nerabeen babesa.
- Garapenerako lankidetzak.

03: DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL

Éste es el tercero de los presupuestos que el Departamento de Política Social ha elaborado en un contexto de crisis sistémica. A esta circunstancia se añaden en el caso del Territorio Histórico de Gipuzkoa dos factores:

- La no realización del reajuste financiero previsto en la Ley 12/2008 de Servicios Sociales.
- La suspensión de la financiación del nivel acordado y la reducción del nivel mínimo de la Ley Estatal de la Dependencia.

En este marco, el avance hacia la configuración de los servicios sociales como derecho subjetivo perfecto deberá demorarse en el tiempo.

Es por ello que el objetivo principal establecido para el próximo ejercicio es el de la resistencia. Resistencia entendida como consolidación y mantenimiento de los principales derechos adquiridos por la ciudadanía guipuzcoana.

Pero para la consolidación y mantenimiento de estos derechos es necesario realizar una cosignación presupuestaria superior a la del año 2013. La reducción del nivel mínimo de la Ley Estatal de la Dependencia ha supuesto una pérdida de 30 millones de euros en el ejercicio anterior. Reducción que debe ser cubierta con fondos propios para no castigar a las personas dependientes guipuzcoanas.

Para el desarrollo de las funciones atribuidas al Departamento de Política Social, el presupuesto de 2014 se estructura en base a los siguientes programas:

- Servicios generales.
- Atención a personas con discapacidad.
- Atención a personas mayores.
- Planificación y sistemas de información.
- Plan de inversiones y cooperación social.
- Prestaciones económicas periódicas.
- Inserción social y atención a mujeres víctimas de la violencia machista.
- Protección a la infancia y a la adolescencia.
- Cooperación al desarrollo.



Gipuzkoarren gizarte ongizate mailari eustea departamentuko apustu nagusiei eusteko aurrekontu igoerarekin batera dator.

Laguntza Pertsonalerako Dirulaguntza jasotzeko eskubidea zabaltzeak izan duen arrakastak aurreko urtean egindako aurrekontu aurreikuspenen handitzea dakar.

Sistema kapitalistaren logikak bultzatuta gertatzen ari den herritarren pobretze progresiboari erantzuteak diru sarrerak bermatzeko laguntzari eusteko baliabideak laukoiztera garamatza, gutxieneko errenten gure eredia baita.

Era berean, aurrekontuan argi eta garbi adierazi dugu gobernu honek uste osoa duela pertsonak kalitatez zaintzeko, gizarte esku-hartzean lan egiten duten profesionalentzat lan baldintza egokiak bilatzen jarraitu behar dugula. Baldintza horiek gauzatzeko, Gizarte Interbentzio Hitzarmena eta Egoitza eta Eguneko Zentroetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenen ondorio diren hazkundeen aurrekontu esleipenak egin dira.

010 programa: ZERBITZU OROKORRAK

Programa honen helburu nagusia Departamentuak egindako programa eta jarduketak bermatu, koordinatu eta kontrolatzea da, eta halaber, foru diputatuak nola zuzendaritza nagusiek eta zerbitzuek behar duten laguntza eta aholkuak ematea, baita Departamentuko administrazio eta informatika arloko sistemetan hobekuntza dakarten hainbat jarduera bultzatzea ere.

Helburu horrek oinarrizko jarduera hauek bilduko ditu:

- Azterketak eta irizpenak egitea.
- Departamentuaren Erregistro Orokorra.
- Departamentuko jarduerak zabaltzeko ekintzak.
- Aurrekontu eta kontabilitatearen kudeaketa eramatea.
- Koordinatzea kudeaketa administratiboa Foru Aldundiko beste departamentuekin, Batzar Nagusiekin eta Arartekoarekin.
- Kudeaketa juridikoa eramatea.

El mantenimiento del nivel de bienestar social de la población guipuzcoana viene acompañado por el incremento presupuestario necesario para sostener las principales apuestas del departamento.

El éxito alcanzado en la extensión del derecho a percibir la Prestación Económica de Asistencia Personal conlleva la necesaria ampliación presupuestaria sobre las previsiones realizadas el pasado año.

La respuesta al progresivo empobrecimiento de la población provocado por las lógicas del sistema capitalista nos obliga a multiplicar por cuatro los recursos económicos destinados al sostenimiento de la Ayuda de Garantía de Ingresos, que constituye nuestro modelo de rentas mínimas.

Asimismo, el presupuesto recoge el convencimiento de este Gobierno de que para prestar cuidados de calidad a las personas, es imprescindible seguir avanzando hacia unas condiciones laborales adecuadas. Estas condiciones se materializan a través de las consignaciones presupuestarias necesarias para responder a los incrementos derivados del Convenio de Intervención Social y a la propuesta realizada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para Residencias y Centros de Día.

Programa 010: SERVICIOS GENERALES

El objetivo básico de este programa consiste en asegurar, coordinar y controlar los programas y actividades desarrolladas por el Departamento, prestar el apoyo y el asesoramiento que requieran tanto el Diputado Foral como las Direcciones Generales y los Servicios, así como impulsar cuantas actividades conlleven una mejora en los sistemas administrativos y de información del Departamento.

Las actuaciones básicas que se encuentran dentro de este programa son:

- Elaboración de estudios y dictámenes.
- Registro General del Departamento.
- Acciones de divulgación de las actuaciones del Departamento.
- Gestión presupuestaria y contable.
- Coordinación en la gestión administrativa con otros departamentos forales, Juntas Generales y Ararteko.
- Gestión jurídica.



Aipatutako helburu nagusietatik zuzenean eratorritako jardueraz gain, garrantzitsua da Departamentuarentzako osotasunean esanguratsuak diren beste jarduerak nabarmentzea, programa honen garapenaren bitartez bultzatzen direnak. Hauek dira:

- Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen asebetetzea aztertzea.
- Departamentuko langileen eta gizarte zerbitzuen arloko profesionalen prestakuntzan laguntzea.
- Gizarte Zerbitzuetako arloan herritarrentzako informazioa eta arreta ematea.
- Departamentuari atxikita dauden kontsultarako bilkurei laguntza teknikoa ematea:
 - Adineko pertsonen kontseilua.
 - Desgaitasuna duten pertsonen kontseilua.
 - Gizarteratzeko kontseilua.
 - Gipuzkoako gizarte eskuhartzearen etika batzordea.
- Espediente elektronikoa abian jartzeko prozesuaren departamentuko zerbitzuak koordinatzea.

100. Programa: DESGAITUEN LAGUNTZA

HELBURU OROKORRA: Desgaituei behar dituzten zerbitzuak eta laguntzak ematea beren ohiko ingurunean (etxea, familia) jarraitu ahal izan dezaten. Eta hori ezinezkoa denean, egoitza arreta integrala eskaintzea, ahal den neurrian, beren gaitasunak gara ditzaten eta komunitatean txertatuta jarrai dezaten.

Helburu orokor hori esku hartze estrategikoko bi ildoen bitartez gauzatzen da:

- etxean jarraitzeko aukera ematea.
- etxetik ateratzea azkeneko aukeratzat jotzea, eta horretara behartuz gero, kalitatezko egoitza zerbitzua eskaintzea.

Además de las actividades que se derivan directamente de los objetivos principales señalados es importante resaltar otras actividades significativas para el conjunto del Departamento que se impulsan desde el desarrollo de este programa. Son las siguientes:

- Análisis de la satisfacción de las personas usuarias de los servicios sociales.
- Apoyo a la formación del personal del Departamento así como de los profesionales del ámbito de los servicios sociales.
- Información y atención ciudadana en el ámbito de los servicios sociales.
- Apoyo técnico a los consejos consultivos adscritos al departamento:
 - Consejo Personas Mayores.
 - Consejo Personas con Discapacidad.
 - Consejo para la Inclusión Social.
 - Comité de Ética en Intervención Social de Gipuzkoa.
- Coordinación entre los servicios del departamento del proceso de desarrollo e implantación del expediente electrónico.

Programa 100: ATENCIÓN A PERSONAS CON DISCAPACIDAD

OBJETIVO GENERAL: Proporcionar a las personas con discapacidad los servicios y apoyos necesarios para posibilitarles el mantenimiento en su medio natural (domicilio, familia). Y cuando ello no resulte posible, ofrecerles una atención integral residencial que permita, en la medida de lo posible, el mantenimiento de sus capacidades y de su integración en la comunidad.

Este objetivo general se lleva a cabo a través de dos líneas de intervención estratégica:

- favorecer la permanencia en el domicilio familiar.
- considerar la salida del domicilio como el último recurso ofreciendo una alternativa residencial de calidad.



Horrez gain, adimen osasuneko arazoak dituzten pertsonen arreta egokia eskaini nahi zaie –arazo hori oso espezifiko eta desgaituen taldean gero eta ugariagoa baita-. Horretarako, zerbitzu bereziak eskainiko dira arlo soziosanitarioan, Osasuneko Sistemarekin behar bezala koordinatuta.

Helburu orokor horrek eta esku hartze ildo estrategikoez bat egiten dute Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza eta autonomia pertsonala sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/06 Legearekin, eta lege erreferentzia horrek zehaztuko du desgaituen zaintzak etorkizunean izango duen bilakaera. Programa honen xede nagusia da desgaituen bizi kalitatea hobetzea eta autonomia pertsonala areagotzea.

A) Etxean bizitzen jarraitzea

- Desgaituak beren ohiko ingurunean jarraitzea lagunduko dugu, desgaituei gizarteratzen eta eguneroko jarduerak egin ahal izateko autonomia pertsonala eskuratzen lagunduko dieten laguntzako produktuak (laguntza teknikoak) eskainiz.
- Zaintza edo gainbegiraketa premia handia duten adimeneko desgaituentzako (adimen urritasun larriak, ertainak eta sakonak) edo desgaitasun mistoa dutenentzako (garuneko paralisia, garuneko lesioa) eguneko zentroen sarea osatu eta indartuko dugu, eskualde irizpideari eutsiz eta eguneko zaintza premia handia duten talde berrientzako laguntza indartuz.
- Norberaren etxean autonomia bultzatzeko programa finkatuko dugu, egoitza zentroetatik kanpo bizi daitezkeen eta bizi nahi duten desgaituek bizimodu independentea eduki ahal izan dezaten.
- Desgaituen familia harrera finkatuko dugu, beren ohiko ingurunean jarraitzea eta integratzea ahalbidetuko duen aukera modura.

Además, dada la especificidad y su creciente protagonismo dentro del colectivo de las personas con discapacidad, se pretende dedicar una adecuada atención a las personas con problemas de salud mental, ofreciendo servicios específicos, debidamente coordinados con el Sistema de Salud, dentro del ámbito sociosanitario.

Este objetivo general así como las líneas de intervención estratégica están alineados con la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, referencia legal que determinará la evolución futura de la atención a las personas con discapacidad. La mejora de su calidad de vida y el incremento de la autonomía personal de este colectivo constituyen la finalidad última de este programa.

A) Mantenimiento en el entorno

- Facilitar la permanencia en el entorno de las personas con discapacidad mediante la concesión de productos de apoyo (ayudas técnicas) dirigidos a favorecer la autonomía personal para la realización de las actividades de la vida diaria y su integración social.
- Completar y reforzar la red de centros de día para personas con discapacidad intelectual (deficiencias mentales severas, medias y profundas) o mixta (parálisis cerebral, daño cerebral) con alta necesidad de cuidados y/o supervisión, manteniendo el principio de comarcalización y potenciando la atención a nuevos colectivos con gran necesidad de atención diurna.
- Consolidar el programa de vida independiente, que tiene como objetivo fundamental que las personas con discapacidad desarrollen un proyecto de vida independiente y puedan vivir en un entorno social propio y ajeno a la red de centros residenciales.
- Consolidar el acogimiento familiar de personas con discapacidad como alternativa que favorece el mantenimiento e integración de las mismas en su entorno social habitual.



- Pertsona desgaituak bere kargura dituzten familientzat larrialdi egoeran eta/edo atsedena hartzeko aldi baterako egonaldien programa bultzatzen jarraituko dugu.
- Pertsona desgaituen babesgabezia saihesteko tutoretza jarduerak indartuko ditugu, arlo horretan lan egiten duten entitateei lagunduz.
- 0 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutako arreta goiztiarreko zerbitzua zabaltzen jarraituko dugu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan une honetan garatzen ari den hezkuntzako eta alor sozio-sanitarioko arreta goiztiarreko eredu berria ezartzen lagunduko dugu.
- Seguir impulsando los programas de respiro y de estancias temporales para familias con personas con discapacidad a su cargo, incluyendo las situaciones de emergencia y de imposibilidad temporal de atención en su entorno.
- Reforzar las actuaciones tutelares dirigidas a evitar la desprotección de las personas con discapacidad, mediante el apoyo a las entidades existentes que trabajan en el sector.
- Seguir incrementando el servicio de atención temprana, dirigida a niños y niñas de entre 0 y 6 años, así como contribuir a la implantación del nuevo modelo de atención temprana socio-sanitario y educativo que en estos momentos se está desarrollando en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

B) Bizikidetzako aukerak:

- Desgaituek dituzten premia berriei erantzuteko egoitza baliabide berriak bultzatu eta lehendik daudenak egokituko ditugu.
- Desgaituentzako ostatu sarea finkatuko dugu, eskualdekako banaketa printzipioari eutsiz.
- Adimen osasuneko zerbitzuekin koordinazio protokoloak ezarriko ditugu.
- Tutoretza zerbitzuekin jarduera protokoloak ezarriko ditugu, eta ezgaitzeko arriskuan dauden pertsonentzat babes bide osagarriak.
- Baliabide soziosanitarioak diseinatu eta sortuko ditugu, adimen desgaitasuna, buru nahastea eta jarrera nahasteak dituztenei arreta espezializatua eta osoa eskaintzeko.
- Adimen nahaste kronikoa duten helduentzako egoitza plaza gehiago eskaini ahal izateko proiektu berriak suspertuko ditugu.

B) Alternativas convivenciales:

- Promoción de nuevos recursos residenciales y adaptación de los existentes para la atención a las nuevas necesidades de las personas con discapacidad.
- Consolidar la red de alojamientos para personas con discapacidad, manteniendo el principio de comarcalización.
- Establecimiento de protocolos de coordinación con los servicios de salud mental.
- Establecimiento de protocolos de actuación con los servicios tutelares y de cauces de protección complementarios a personas en riesgo de una situación de incapacitación.
- Diseño y creación de recursos sociosanitarios para la atención especializada integral a personas con discapacidad intelectual, trastorno mental y trastornos de conducta.
- Promover proyectos para incrementar la oferta de plazas residenciales para personas adultas con trastorno mental severo crónico.



- Beste talde batzuentzako zentroetan integratutako arreta moduluetan adimen nahaste larria eta kronikoa dutenentzat plaza berriak diseinatuko ditugu.

Bi ildo estrategikoetako bakoitzean ondorengo jarduerak aurreikusi dira 2014. urterako:

A) Etxean bizitzen jarraitzea:

- Emandako laguntza produktuen (laguntza teknikoak) kopuruari eustea 2008ko abenduaren 23ko 87/08 Dekretuaren deialdiaren eraginkortasuna hobetuz, eta produktu horien banaketa eta aurrekontu saila optimizatzea, errekuagarriak diren ondasunei lehentasuna emanez eta esku batzuetatik besteetara pasaraziz, desgaitasuna eta mendekotasuna duen ahalik eta jende kopuru handienera iris daitezen. Dekretua bera aldatzea ere baloratzen ari gara. Irisgarritasunari eta desgaituek eskuratu ditzaketen laguntza produktuen premiari eta egin beharreko moldaketei buruzko informazioa eta orientazioa finkatzea.
- Bizimodu independenterako programa finkatzea, eskariari estaldura emanez. .
- Desgaituentzako aldi baterako egonaldiak eskaintzen dituzten plazzen erabilera optimizatzea, batetik, horretarako berariaz xedatutako plazak erabiliz eta, bestetik, asteburuetan erabiltzaileak etxera joaten direlako hutsik gelditzen diren plazak erabiliz.
- Tutoretza zerbitzuak eskaintzen dituzten Atzegi (adimen desgaitasuna) eta Hurkoa (buruko gaixotasuna eta narriadura kognitiboa) fundazioekin izenpetutako hitzarmenak berrikustea, tutoretza kopurua sendotuz eta horien edukia zehaztuz, hazten ari den eskaera kontuan hartuta.
- Balorazio, Orientazio eta Kalifikazio Ataletik 6 urtez azpiko umeei arreta goiztiarreko zerbitzuak jaso ditzaten bultzatzea, eta Euskal

- Diseñar y crear nuevas plazas para personas con trastorno mental severo crónico en módulos de atención integrados en centros destinados a otros colectivos.

En cada una de las tres líneas estratégicas se han previsto las siguientes actividades durante el año 2014:

A) Mantenimiento en el entorno:

- Mantenimiento en el número de productos de apoyo (ayudas técnicas) concedidos mejorando la eficiencia de la convocatoria del Decreto 87/2008, de 23 de diciembre, optimizando su distribución y la partida presupuestaria, primando y haciendo circular los bienes de carácter recuperable, para hacer llegar los mismos a un mayor número de personas con discapacidad y dependencia. Se está valorando incluso la modificación del citado Decreto. Consolidación de la información y orientación sobre accesibilidad y sobre las necesidades y adecuaciones de las personas con discapacidad respecto de los productos de apoyo de los que puede beneficiarse.
- Consolidar el programa de vida independiente, dando cobertura a la demanda.
- Optimizar la utilización de plazas destinadas a ofrecer estancias temporales para personas con discapacidad; bien mediante plazas específicamente destinadas a tal fin, bien mediante el aprovechamiento durante los fines de semana de las plazas que quedan temporalmente vacías por retorno al domicilio.
- Revisar los convenios suscritos con las Fundaciones Atzegi (discapacidad intelectual) y Hurkoa (enfermedad mental y deterioro cognitivo) que prestan servicios tutelares, consolidando el nº de tutelas y concretando el contenido de las mismas, en función de la creciente demanda existente.
- Favorecer desde la Sección de Valoración, Orientación y Calificación el acceso de los/as niños/as menores de 6 años a los servicios de



Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruz laster onartuko den dekretu berriko funtzionamendu egitura eta jarduketa irizpideak ezartzea.

atención temprana e implantar la estructura de funcionamiento y criterios de actuación que establece el nuevo Decreto sobre la intervención integral en Atención Temprana en la Comunidad Autónoma del País Vasco, de próxima aprobación.

B) Bizikidetzako aukerak:

- Adimen nahaste larria eta kronikoa dutenentzako ostatu sarea finkatzea eta balioztatzea, bereziki ireki berriak diren Arrasateko Binako Patologia Unitatea eta zentroko adimen nahaste larria dutenentzako egoitza unitate berriak.
- Koordinazio soziosanitarioko sistema berri bat ezartzea adingabeen egoitza harrerako sarearen eta Adimen Osasunaren artean.

B) Alternativas convivenciales:

- Consolidar y evaluar la red de alojamientos para personas con trastorno mental severo crónico, en especial las recientemente inauguradas Unidad de Patología Dual de Arrasate (UDITRAC), y las nuevas unidades residenciales de trastorno mental severo (URTMS).
- Implantación de un nuevo sistema de coordinación sociosanitaria entre la red de acogimiento residencial de menores y Salud Mental.

Departamentuak 2014an gauzatu asmo dituen jarduera ildoen onuradun kopurua honako hau da:

El número de personas beneficiarias de las líneas de actuación que el Departamento tiene previsto desarrollar en el año 2014 son:

JARDUERA ILDOA./ LÍNEA DE ACTUACIÓN	Plaza kop./ Nº de plazas
Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza eta etxebizitak./ Alojamientos para personas con discapacidad.	764
Adimen nahastea duten pertsonentzako egoitza eta etxebizitak./ Alojamiento para personas con trastorno mental.	198
Desgaitasuna duten pertsonentzako atsedeen-egoitza zerbitzua./ Servicio residencial de respiro para personas con discapacidad.	307
Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak./ Centros de día para personas con discapacidad.	628
Adimen nahastea duten pertsonentzako eguneko zentroak./ Centro de día para personas con trastorno mental.	228

JARDUERA ILDOA./ LÍNEA DE ACTUACIÓN	Onuradun kop./ Nº de personas beneficiarias
Bizimodu independenterako programa./Programa vida independiente.	36
Harrera-familiak./ Familias de acogida.	12
Laguntza produktuak (laguntza teknikoak./ Productos de apoyo (ayudas técnicas).	1.942(*)
Arreta goiztiarra/ Atención temprana.	250

(*) 3.963 laguntza produktu (lehen laguntza teknikoak) ematea aurreikusten da, erabiltzaile bakoitzeko 2,04 laguntza batez beste./

Se estima en conceder un total de 3.963 productos de apoyo (antes ayudas técnicas), a razón de 2,04 ayudas por persona beneficiaria.



110. programa: ADINEKOEN LAGUNTZA

HELBURU OROKORRA: Beharrezkoak diren laguntzak ematea adinekoak beren ohiko ingurunean –etxea, familia- egon daitezen ahalik eta denbora gehiengan, etxetik ateratzea azkeneko aukeratzat hartuta. Nolanahi ere, hori ezinbestekoa izango balitz, beharrezkoak diren laguntza integraleko zerbitzuak bermatuko dira.

Helburu orokor horrek eta esku hartze ildo estrategikoen bat egiten dute Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza eta autonomia pertsonala sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/06 Legearekin, eta erreferentziazko legetzat hartu behar da mendekotasuna duten adinekoen zaintzari dagokion guztian. Programa honen xede nagusia da adineko horien bizi kalitatea hobetzea eta autonomia pertsonala areagotzea.

A.- Etxean bizitzen jarraitzea:

Adinekoak bere etxean bizitzen jarraitzeko helburua ziurtatzearen, Gizarte Politikako Departamentuak ondorengo jarduerak lehenesten eta bultzatzen ditu:

- Familia zaintzaileei laguntzeko SENDIAN programarekin jarraitzea eta bultzatzea (atsedeneko egonaldiak, laguntza taldeak, laguntza psikologikoa, asteburuko egonaldiak eguneko zentroetan eta egoitzetan). Horri gehitu beharko litzaioke zaintzaileei edo adinekoen ingurunean bertan zaintzak ematen dituztenei prestakuntza eskaintzea.
- Bere etxean bizi ohi diren adinekoentzako egoitza zentroetako aldi baterako egonaldien programa finkatzea, unitate psikogeriatrikoen profileri dagokienez.

Programa 110: ATENCIÓN A PERSONAS MAYORES

OBJETIVO GENERAL: Proporcionar los apoyos necesarios para el mantenimiento de las personas mayores en su medio habitual – domicilio, familia– tanto como sea posible, considerando la salida del domicilio habitual como la última solución, garantizando en ese caso los servicios de atención integral que sean necesarios.

Este objetivo general así como las líneas de intervención estratégica están alineados con la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, referencia legal indudable en el ámbito de la atención a las personas mayores dependientes. La mejora de su calidad de vida y el incremento de la autonomía personal de este colectivo constituyen la finalidad última de este programa.

A.- Mantenimiento en el entorno:

Con el fin de asegurar el mantenimiento en su medio el Departamento de Política Social prioriza y promueve las siguientes actuaciones:

- Mantenimiento y promoción del programa SENDIAN de apoyo a las familias cuidadoras (estancias de respiro, grupos de apoyo, apoyo psicológico, estancias de fin de semana en centros de día y residencias). A esto habría que añadir la formación a cuidadores o prestadores de cuidadores en el entorno.
- Cobertura del programa de estancias temporales en centros residenciales para personas mayores que viven habitualmente en su domicilio, consolidando la misma en relación con los perfiles psicogeriatricos.



- 100. programaren dagokion atalean adierazitako egitekoa eta edukia duten laguntzako produktuen (laguntza teknikoak) eskaintzari eustea, ez bakarrik desgaituentzat, baita mendekoentzat ere, eta horien artean adinekoek kolektibo adierazgarria osatzen dute.
- Harrera-familien programarekin jarraitzea, egoitza eskariari erantzuna emanez. eta egon daitezkeen eskaera berriei zabaltzea.
- Eguneko zentroen sarea zabala mantentzea: zerbitzu hori oso garrantzitsua da zaintza berezia behar duten pertsonak (alzheimer, zahartzaroko demenzia...) beren etxeetan bizitzen jarraitzeko helburua lortzeko, familia zaintzaileei laguntza eskainiz.
- Eguneko zentroetako arretaren eredia aztertzea eta garatzea, narriadura kognitiboa eta demenzia duten pertsonen premia bereziei erantzuteko.
- Eguneko zentroeiei dagokienez ere, zerbitzuen katalogoa eta garraio zerbitzua arautzeko asmoa dugu.
- Adinekoen tutoretza jarduerak indartzea, familiei laguntza emanez tutoretzaren ardura bere gain har dezaten. Desgaituentzat aurreikusitako babesgabezia arriskuko kasuetan zehazteko eta zabaltzeko egiten den lan bera egingo litzateke.
- Mantenimiento de la oferta de productos de apoyo (ayudas técnicas), no sólo para personas discapacitadas, sino para personas dependientes, entre las cuales las personas mayores son un colectivo representativo con el cometido y contenido indicados en el punto correspondiente del programa 100.
- Mantenimiento del programa de familias de acogida, dando respuesta a la demanda de acogimientos.
- Mantenimiento de la extensa red de centros de día, servicio que resulta muy eficaz para facilitar la permanencia en el domicilio de las personas con especiales necesidades de atención (Alzheimer, demencias seniles, etc.) ofreciéndole apoyo también a la familia cuidadora.
- Realización de un análisis y desarrollo del modelo de atención en centros de día para atender las necesidades específicas de las personas con deterioro cognitivo y demencias.
- También en el ámbito de los centros de día, se plantea la regulación de la cartera de servicios y del servicio de transporte.
- Refuerzo de las actuaciones tutelares de personas mayores, mediante el apoyo a las propias familias para la asunción por éstas de la responsabilidad de la tutela. Se haría una labor de concreción y extensión igual a los casos de riesgo de desprotección previstos para personas con discapacidad.

B.- Bizikidetzako aukerak:

Etiketik atera behar izanez gero, eta egoitzetako plazei dagokienez, ondorengo helburua ezartzen dugu:

- Erabilgarri dauden egoitza plazen sarea mantentzea, eta plazak esleitzeko prozesuan hobekuntzak egitea premia larrieneko egoerei, bereziki mendekotasun handia dutenei, erantzun azkarragoa eta egokiagoa emateko.

B.- Alternativas convivenciales:

Una vez producida la salida del domicilio, y en relación a las plazas residenciales, se plantea el siguiente objetivo:

- Mantener la red de plazas residenciales disponibles, e introducir mejoras en el proceso de asignación de plazas con el objetivo de dar respuesta más rápida y adecuada a las situaciones de necesidad más urgentes, especialmente las personas grandes dependientes.



- Halaber, egoitzak Egoitza Zerbitzuen Katalogora egokitzeko prozesuarekin jarraituko dugu. Katalogo hori adineko mendeko pertsonentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko behar diren baldintzak zehazten dituen 2007ko maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretuak arautzen du.
- Unitate psikogeriatrikoetan koordinazio soziosanitarioa indartuko dugu, adimen osasuneko zerbitzuen berariazko laguntzarekin.
- Así mismo se continuará con el proceso de adecuación de las residencias al Catálogo de servicios residenciales regulado mediante el Decreto Foral 38/2007, de 22 de mayo, por el que se determinan las condiciones necesarias para la concertación de servicios residenciales para personas mayores dependientes.
- Reforzar la coordinación sociosanitaria en las unidades psicogerítricas con la atención específica de los servicios de salud mental.

C. Balorazioa:

Programa honen barruan sartzen da baita ere Departamentuko Balorazio, Orientazio eta Kalifikazio Atalaren jarduera, ondorengoei dagokienez:

- Mendekotasuna: balorazioa eta baliabideetarako orientazioa.
- Desgaitasuna: balorazioa eta desgaitasuneko baliabideetarako orientazioa.

Jarduera horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legeak zehazten duen esku hartze prozeduraren barruan sartuta daude eta balorazio baremoen arabera garatzen dira, kasu batzuetan (mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioa) IMSERSOk berak ezarritakoak edo, beste batzuetan (RAI. Mendekotasunaren orientazioa), Departamentuak beste iturri batzuetatik hartutakoak, lortu nahi diren helburuak erdiesteko.

Balorazio eta orientazio funtzio horiek nahitaezkoak dira Gizarte Zerbitzuetako Sistemaren zerbitzuen katalogoan jasotako zerbitzuak eta, zenbait kasutan, beste sistema batzuetako zerbitzuak eskuratzeko.

Mendekotasun balorazioen aurreikusitako kopuruaren bilakaerak behera egin du pixka bat, eskaeren hasierako oldea igaro delako eta egokitzapen tekniko batzuk egin direlako (baremo zorrotzagoa onartzea edo alde aurreko iragazkiak ezartzea dira, besteak beste, aurreikus zitekeen aldagai horren beherakada txikiaren

C. Valoración:

También se encuadra en este programa la actividad de la Sección de Valoración, Orientación y Calificación del Departamento en lo referente a:

- Dependencia: Valoración y orientación a recursos.
- Discapacidad: Valoración y orientación a recursos de discapacidad.

Todas ellas enmarcadas en el procedimiento de intervención que determina la vigente Ley de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y desarrolladas conforme a baremos de valoración, en unos casos (BVD y Discapacidad) establecidos por el propio IMSERSO o, en otros (RAI. Orientación de la dependencia), adoptados por el Departamento de otras fuentes, para la consecución de los objetivos perseguidos.

El desarrollo de estas funciones de valoración y orientación es un paso previo al acceso a los diferentes servicios contenidos en el Catálogo de Servicios del Sistema de Servicios Sociales y, en algunos casos, a servicios de otros sistemas.

La evolución esperada del número de valoraciones de dependencia es ligeramente descendente, además de por haberse producido ya la avalancha inicial de solicitudes, por haberse realizado algunos ajustes técnicos (la aprobación de un nuevo baremo más exigente o la realización de filtros previos son, entre otros



arrazoiak), zenbait kasutan eskaera mota batzuk ez egitea aholkatzen dutenak.

Beste alde batetik, desgaitasuna baloratzeko eskaerek ere behera egin dute, kasu honetan, balorazio mota horrekin lotutako prestazio batzuen egokitzapen teknikoarekin zerikusia duten arrazoiak direla eta.

Datorren ekitaldiko helburu nagusia hau izango da: balorazio prozesua publikatzea eta, horregatik, behar den informazioa lortzeko fasea Aldundiko langileekin betetzea balorazio mota guztietan, gaur egun sektoreko enpresa espezializatuen bidez betetzen baita fase hori. Publikatze prozesu horrekin batera, beste helburuetako bat zera izango da: tresna horien ezarpena doitzen jarraitzea, prozedurak baremo ezberdinetan aurreikusitako aldaketetara egokitzea, eta aurten abian jarri den Ataleko antolakuntza doitzea, tresna horiek modu egokiagoan ezartzeko.

Ekintzak:

1. Jasotako eskabideak izapidetzea, eskatutako baldintza teknikoak eta administratiboak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, eta balorazioak egitea.

2. Adierazi den publikatze prozesuak eskatzen duen lan plana definitzea eta plan hori gauzatzea.

3. Antolakuntza doitzea, balorazio tresna ezberdinak ezartzean koordinaziorik eta koherentziarik handiena ziurtatzeko.

Departamentuak 2014an gauzatu asmo dituen jarduera ildoan onuradun kopurua honako hau da:

los motivos de esta previsible suave tendencia a la baja de esta variable) que desaconsejan, en algunos casos, determinado tipo de solicitudes.

Por su parte también se esta produciendo un ligero descenso del número de solicitudes de valoración de discapacidad, en este caso por motivos relacionados con el ajuste técnico de algunas prestaciones relacionadas con este tipo de valoración.

El objetivo principal, de cara al próximo ejercicio, es la completa publicación del proceso de valoración asumiendo mediante personal propio la fase de obtención de la información necesaria para la realización de todas las modalidades de valoración, fase desarrollada actualmente a través de empresas especializadas del sector. Y en paralelo a este proceso de publicación, también será un objetivo continuar profundizando en el ajuste en la aplicación de estas herramientas, adecuar los procedimientos a las modificaciones previstas en los respectivos baremos así como consolidar el ajuste (ya iniciado este año) de la organización de la Sección para abordar de forma más adecuada la aplicación de estos instrumentos.

Acciones:

1. Tramitar las solicitudes recibidas, previa comprobación del cumplimiento de los requisitos técnicos y administrativos establecidos para ello, y realizar las valoraciones.

2. Definir el plan de trabajo necesario para el proceso de publicación señalado y ejecutar el mismo.

3. Ajustar la organización con el fin de asegurar la máxima coordinación y coherencia en la aplicación de los diferentes instrumentos de valoración.

El número de personas beneficiarias de las líneas de actuación que el Departamento tiene previsto desarrollar en el año 2014 son:

**JARDUERA ILDOA / LÍNEA DE ACTUACIÓN**

	Plaza kop./ Nº de plazas
Bizikidetzako aukerak / Alternativas convivenciales:	
Egoitzak (Unitate Psikogeriatrikoak)/ Residencias (Unidades Psicogerítricas)	535
Egoitzak (Bestelako plazak)/ Residencias (Resto de plazas)	3.795
Etxean Bizitzen jarraitzea / Mantenimiento en el entorno:	
Eguneko zentroak (iraunkorrak)/Centros de día (permanente)	1.484
Eguneko zentroak (asteburukoak)/Centros de día (fin de semana)	597
	Onuradun kop./ Nº de personas beneficiarias
Etxeo laguntza./ Servicio de ayuda a domicilio	5.114
Sendian programa: eguneko zentroak./Programa Sendian: Centros de día	150
Sendian programa: asteburuko egoitzak/Programa Sendian: residencias fin de semana	180
Egoitzetan aldi baterako egonaldiak./ Estancias temporales en residencias	900
Balorazioa / Valoración:	
BVD balorazio kopurua / Número de valoraciones BVD	8.580
RAI balorazio kopurua / Número de valoraciones RAI	5.318
Desgaitasun balorazio kopurua / Número de valoraciones de Discapacidad	5.811

200. programa: PLANGINTZA ETA
INFORMAZIO SISTEMAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen sistema hazten ari da etengabe, gizarte zerbitzu publikoen eskaeraren etengabeko hazkundearen eraginez. Eskaera hori mendetasun, babesgabezia eta bazterketa egoeretan dauden pertsonen beharrei aurre hartzeko eta erantzuteko alorretan ari da gertatzen.

Horretarako, azterlanen eta planen lanketaren, koordinazioaren, jarraipenaren eta ebaluaketaren bidez, plangintza estrategikoa sustatuko da Departamentuaren barruan.

Halaber, informazio sistema iraunkor bat osatu eta kudeatuko da. Sistema horrek aukera emango du Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen eskaintzari eta eskariari buruzko informazio eguneratua aztertzeke eta zabaltzeko.

Azkenik, eta gizarte-zerbitzuen arloan, programa honetatik arreta-kalitatearen hobekuntza, berritze-zaletasuna eta ikerlana bultzatuko dira.

Hori dela eta, hurrengo ekitaldirako honako egitasmo hauek aurreikusten ditugu:

Programa 200. PLANIFICACION Y SISTEMAS
DE INFORMACIÓN

El sistema de servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa presenta un continuo crecimiento motivado por un constante incremento de la demanda de servicios sociales públicos, que incide fundamentalmente en la prevención y atención de las personas en situación de dependencia, desprotección y exclusión.

Para ello, se promoverá la planificación estratégica dentro del Departamento a través de la elaboración, coordinación, seguimiento y evaluación de planes y estudios.

Asimismo, se diseñará y gestionará un sistema de información permanente que permitirá analizar, transferir y difundir la información actualizada sobre la oferta y la demanda de los servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa

Por último, desde este programa se coordinará dentro del Departamento la mejora de la calidad de la atención, la innovación y la investigación en materia de servicios sociales.

En consecuencia, para el próximo ejercicio se prevén las siguientes intervenciones:



- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa onartzea. Mapa horretan gizarte zerbitzuei buruzko etorkizunari begirako aurreikuspenak aztertuko dira, eta Gipuzkoarako estaldura-maila espezifikoak ezarriko dira.
- Gizarte zerbitzuei buruzko informazio-sistema hobetzea.
- Lurraldeko gizarte-behatokia egokitzea eta eguneratzea. Behatokian gizarte zerbitzuen eskaintzari eta eskariari buruzko oinarritzko datuak biltzea.
- Gizarte zerbitzuen inguruko azterlanak eta ikerketa proiektuak lantzea.
- Aprobación del Mapa de Servicios Sociales de Gipuzkoa en el que se analizarán las previsiones de futuro en materia de servicios sociales y se establecerán objetivos de cobertura específicos para Gipuzkoa.
- Mejora del sistema de información en materia de servicios sociales.
- Adecuación y actualización del observatorio social en el Territorio en el que se recogerán los datos básicos sobre la oferta y demanda en materia de servicios sociales.
- Elaboración de estudios y proyectos de investigación en materia de servicios sociales.

210 Programa. INBERTSIOETARAKO ETA GIZARTE LANKIDETZARAKO PLANA

HELBURU OROKORRA: Gizarte Politikako Departamentuaren inbertsio alorraren helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen alorrean behar diren inbertsioak egin daitezen sustatzea, herritarren gizarte zerbitzuetarako eskubidea eta eskubide hori behar den mailan gauzatzea bermatu nahi dugulako.

Eguneko egoera ekonimo larria dela eta, lehenetsunak azertu eta soilik behar-beharrezkoak diren proiektuak martxan jartzea erabaki da.

A) Inbertsioen alorra

Adinekoen, elbarritasuna duten edo gizarte bazterkerian dauden edo arriskuan dauden pertsonen arloak dira area honetako esku hartzearen xede. Hemen, aipagarria da, kopuruari erreparatuta, adinekoen arloa, eta bertan egoitza zentroena

Departamentuko inbertsio alorreko kudeaketa bi ardatz nagusiren inguruan bideratzen da; alde batetik behar adina zentro eta behar adina plaza izan dadila, sektore bakoitzeko eskariari eta sektore bakoitzeko behar bereziei erantzuteko, eta, bestetik, gaur egun dauzkagun bitartekoak egoera egokian egon daitezela, behar adinako kalitate maila bermatzeko.

Programa 210: PLAN DE INVERSIONES Y COOPERACIÓN SOCIAL

OBJETIVO GENERAL: El área de inversiones del Departamento de Política Social tiene como objetivo promover la realización de las inversiones necesarias en el área de los servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa que garanticen tanto el derecho mismo de la ciudadanía a los servicios sociales como un nivel adecuado en el desarrollo de este derecho.

La actual coyuntura económica obliga más que nunca a priorizar y acometer aquellos proyectos absolutamente imprescindibles.

A) Área de inversiones

Los sectores de personas mayores, personas con discapacidad y personas en situación o riesgo de exclusión social constituyen el campo de actuación de esta área, en la que debe subrayarse la importancia, cuantitativamente hablando, del sector de personas mayores y dentro de éste el de centros residenciales.

La existencia de centros con el número de plazas suficientes para atender la demanda existente en cada uno de los sectores y tipos de necesidad y el mantenimiento de los medios existentes en condiciones adecuadas para garantizar un nivel de calidad en la atención constituyen las referencias fundamentales en la gestión del área de inversión de este departamento.



Helburu horiek betetzeko, departamentuak inbertsio alorretik esku hartzen du, bai bere ardurapean dituen egoitza eta zentroetan zuzenean inbertsioak eginez, bai sektorean parte hartzen duten erakundeei behar diren inbertsioak egiten lagunduz, erakunde pribatuak izan (irabazi asmoa dutenak edo irabazi asmorik gabeak), nahiz publikoak izan (batez ere udalak).

Lehen multzoari, hau da, Foru Aldundiaren zentroi begira, inbertsio alorretik kontratazioa sustatzen da jarritako helburuetarako behar diren obrak edo erosketak egiteko, eta behar diren aurrekontu kredituak VI. kapituluaren kontsignatzen dira. Bigarren multzoari, hau da, Foru Aldundiaren ez diren zentroi begira, lehentasunezkoak eta estrategikoak diren inbertsioetarako proiektuak jasoko dute laguntza, Gizarte Zerbitzuetako Mapari jarraituz.

Beraz, oinarrizko bi euskarri ditu alor honek bere eginkizuna ongi betetzeko: ikuskaritza zerbitzu bat, gizarte zerbitzuetako zentroyen egoera ondo eta sakon ezagutuko duena, eta zerbitzuen mapa bat, sektore bakoitzean eta zentro mota desberdinetan zenbat eta nolako plazak sortu behar diren zehaztuko duena, dagoeneko dauden plazak eta arazoizko epe batean egongo den eskaria kontuan hartuta.

Departamentuak egin dituen ikuskaritza lanei dagokienez, aipagarriak dira, hurrengo ekitaldirako, adinekoentzako egoitza zentroyek zerbitzu katalogoan agertzen diren zuzenbideak betetzeko aurrera doan prozesua eta hari ematen zaion laguntza. Zerbitzu katalogoa 2006an onartu zen, eta haren bidez Gizarte Politikako Departamentuak arreta modelo ezarri du zentro hauetarako, 1998ko uztailaren 10eko 41/1998 Dekretuak ezartzen dituen baldintza material eta funtzionalez haratago. Aldi berean eginkizun ikuskatzailea gehitzea adingabeei eta gizartaratze egoeran dauden talde zuzendutako zentroetan edo zerbitzuetan.

Guzti hori zehaztuko da 2014. urterako Ikuskaritza Plana onartzen denean.

Para la consecución de estos objetivos el Departamento, desde este área de inversión, interviene bien mediante la realización de inversiones directas en sus propios centros (centros de titularidad foral) o mediante el apoyo económico para la realización de las inversiones necesarias por parte de las diferentes instituciones que intervienen en el sector, ya sean éstas de carácter privado (con o sin fines de lucro) o de carácter público, en este caso fundamentalmente municipales.

En el primero de los casos (centros de titularidad foral) desde este área de inversiones se promueve la contratación de las obras o compras necesarias para el logro de los objetivos planteados, consignándose los créditos presupuestarios necesarios en el capítulo VI de su presupuesto. En el segundo supuesto (centros no propios) se subvencionarán los proyectos de inversión considerados estratégicos y prioritarios de acuerdo con el Mapa de Servicios Sociales.

Como consecuencia de ello son dos, así mismo, los puntos de apoyo básicos de este área para desarrollar adecuadamente esta función: el desarrollo de la existencia de un servicio de inspección que garantice un profundo conocimiento de la situación de los centros de servicios sociales y la existencia de un mapa de servicios que establezca la necesidad de creación de plazas en cada sector y tipo de centro como resultado del número de plazas existente y la demanda en un horizonte temporal razonable.

